

GIZONA-GIZON IZAN BEDI

Ni jauna
zu jauna
bera jauna :

Guziok jaun geranean,
anaitasuna zorionean.

Danok munduko
danok kideko
danona dana :

Dana danona danean,
mundu guzia pakean.

Otsalar

ERREFRAU ERARA

Landu gabeko azke izan naiak :
oiñarri gabeko itxaropenak,
buru-ariñen ames iraunkaitzak.

Geroko obeari begira,
zoriona illobira.

Ondo pentsa ta izan lotsa :
diruak galtzen du biotza.

Gezuraren zantzoak
galerazi egia ;
pakearen usoak
galdu zun kabia.

Otsoa arkume ta
kārdoa krabelin;
okerreko zeregiña
lasai egin dedin.

Milla urte igaro ta
ura bere bidean;
mundu tristean,
alkartu eziñik pelean.

Erdi-Arotik legea,
zigorrezko fedea.

Bi ta bi, lau ez badira,
ni ez nago emen;
zentzua itzaliz
esan nedin «amen».

Otsalar

LARROSA GORRIOK!

Larrosa gorriok!
Odola zarie nire eskuetan.
Odola!
Odol gorria!

Olakoxe gazte-odol kutsugea
ixuri genduan, beiñola,
ta arrezkero ezin osatu da
nire biotzeko zauria.